



Oinarri teknologikoko enpresask edo Enpresa berritzaileak sortzeko programa

TXEKINTEK

AMAIERA TXOSTENA OSATZEKO GIDA



APLIKATIBOAN OSATU:

- Proiektuaren amaierako txostena eta eranskinak.
- Zereginak: amaiera data, orduak, egoera eguneratu (amaituta dauden zeregin guztiek egoeran "amaitua" izan beharko dute.
- Egitasmoaren kostuak: Gauzatutako kostuak eta finantzaketa plana.
- Egitasmoko kostuen frogagiriak eta beraien ordainagiriak eskaneatu eta erantsi.
- Proiektuan zehar sortutako dokumentazioa atxiki behar da.

NOLA ERANTSII GAUZATUTAKO KOSTUEN FROGAGIRIAK

Kostuen frogagiriak eta beraien ordainagiriak eskaneatu eta erantsiko dira

Justifikatzen den kontzeptuaren izenarekin pdf dokumentu bat erantsiko da. Bertan faktura/frogagiri bakoitza bere ordainagiriarekin batera agertuko da, 8. eranskinean jarritako hurrenkera jarraituz.

12.000,00 €EUROTIK GORAKO GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Entitate onuradunak diru-laguntzetan sartzen diren gastu batzuk egin baditu, **12.000,00** euro edo hortik gorakoak (BEZa kanpo), ondasun ekipoak erosten edota aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzu prestazioak erosten, eskatutako hiru eskaintzen artean egin duen aukera egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar du. Salbuespena: laguntza horren ezaugarri bereziak direla-eta behar adinako enpresa edo profesionalik ez badago zerbitzu horiek emateko, edo kostua diru-laguntza eskatu aurretik egin ez bada.

PROIEKTUAREN PUBLIZITATEA

Jasotako laguntzaren eta sustapenaren publizitate egokia (irudi instituzionala, leloak.... sartuz dokumentuetan, euskarri elektronikoetan, komunikazio hedabideetan, etab.) biltzen eta ikusarazten duen dokumentazioa erantsi behar da, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneako eta Lurralde Orekako Departamentuak proiektuari emandakoa.

ZERGA ETA GIZARTE ZEGURANTZAKO BETEBEHARRAK BETETZEA

Entitatearen zerga betebeharrak eta gizarte segurantzako betebeharrak egiaztatzea GFAko



Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneako eta Lurralde Orekako Departamentuaren esku geratu zen, horretarako baimena eman bazion erakundeak eskabide agiria luzatzean. Beraz, egiaztatze lan hauek GFAko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneako eta Lurralde Orekako Departamentuak kudeatuko ditu zuzenean, hala behar izanez gero. Enpresak Gizarte Segurantzaren ordezkio sistema izango balu, berarekiko betebeharrak betetzen dituela azaltzen duen egiaztatzea erantsi.

Proiektuaren dokumentazioa

Proiektuan zehar sortutako dokumentazioa atxiki behar da. Proiektuaren dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak erantsiko da ere.